



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2019IPLE0010

Eguna: 2019-10-29

Ordua: 19:00 – 19:45

Tokia: Areto nagusia

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Aintzane Barandiaran Ezponda..... Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena..... Astigarragako EH Bildu
- Roxali Fernandez Rodriguez Astigarragako EH Bildu
- Esti Neira Martinez Astigarragako EH Bildu
- Aitor Güemes Oyarbide Astigarragako EH Bildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz Astigarragako EH Bildu
- Juan Martín Arregui Sagües..... Astigarragako EAJ-PNV
- Urkiri Salaberria Gracia..... Astigarragako EAJ-PNV
- Nerea Zusberro Alberro..... Astigarragako EAJ-PNV
- Antton Costa Casco..... Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco..... Astigarragako EAJ-PNV

Bertaratu ez direnak

- Mikel Durán Gonzalo.....Udal-talde Sozialista

Bertaratutako udal teknikariak

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezeko udal kontu-hartzailea

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk Nº	ORDEN DEL DIA
2019ko irailaren 24ko akta onartzea.	1	Aprobación del acta de 24 de septiembre de 2019.
2020ko udal aurrekontua	2	Presupuesto municipal del 2020
2020-23ko dirulaguntzen plan estrategikoa	3	Plan estratégico de subvenciones 2020-2023
2019ko soldata igoera	4	Subida salarial del 2019
Astigarragako udalerrian hots kutsaduraren aurka babesteko udal ordenantzaren aldaketa puntuala.	5	Modificación puntual de la ordenanza municipal de protección contra la contaminación acústica en el municipio de Astigarraga.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarea	6	Red Interinstitucional de Promoción de la infancia y la Juventud de Gipuzkoa
Astigarragako <i>Emakumeon Plaza</i> berrurbanizatzeko proiektua	7	Proyecto de ejecución de la reurbanización de <i>Emakumeon Plaza</i> de Astigarraga
Putzuetako ur andelatik Zarkumendegira eta garraio hiriraino ur hornidurarako obra-proiektua.	8	Proyecto de obras para la distribución de agua desde el depósito de Putzueta hasta Zarkumendegi y la ciudad del transporte.
Kale izendegiaren aldaketa.	9	Modificación del callejero.
EHBildu eta EAJ-PNV taldeen mozio bateratua: Kataluinako "Procés"aren aurkako urriaren 14ko epaia	10	Moción conjunta de EHBildu y EAJ-PNV: sentencia del 14 de octubre en contra del "Procés" de Catalunya
Informazio, galdera eta eskariak.	11	Información, ruegos y preguntas.

Esan-eginak eta erabakiak

1.- 2019ko irailaren 24ko akta onartzea.

Jon zinegotzia abstenitu egin da aurreko bileran egon ez zelako, gainerakoek, berriz, alde bozkatu dute. Beraz, akta onartu egin da.

2.- 2020ko udal aurrekontua.

Alkateak azaldu du aurrekontu zirriborroa urriaren 1eko ogasun batzordean aurkeztu zela, eta orduan aukera eman zela udal taldeek beren ekarpenak egiteko, baita herritarrek ere, eta azken horretarako auzoz auzo bilerak egin zirela.

Azaldu du 1. eta 2. kapituluak ez direla asko aldatu, transferentzi arruntena %5,77a igo dela eta inbertsioena, berriz, %54a, eta adierazi du azken kapitulu hori zertarako bideratuko den: Perurena auzo-elkarteko eta pilotalekuko obrak, herri-bideak berritzeko proiektua, Santigomendi auzoaren eta Emakumeon plazaren urbanizazioa Arrobitxuko igogailua, kiroldegian hainbat proiektu, eskola handitzeko proiektua, DBHren proiektua, kultur etxe berria hornitzea...

Adierazi du EAJ-PNV udal taldeak egindako emandakinak aurrekontuan txertatzeko aleginak egin dituztela, eta batzuk osorik onartu direla, eta beste batzuk, berriz, zati bat.

1.- Aprobación del acta de 24 de septiembre de 2019.

El concejal Jon se ha abstenido por no estar presente en la reunión anterior, el resto, en cambio, vota a favor, por lo que se aprueba el acta.

2.- Presupuesto municipal del 2020.

El alcalde explica que el borrador de presupuesto se presentó en la comisión de hacienda del 1 de octubre y entonces se dio la oportunidad de que los grupos municipales hicieran sus aportaciones, también los ciudadanos, y que para esto último se celebraron reuniones barrio a barrio.

Explica que los capítulos 1 y 2 no han variado mucho, que el de transferencias corrientes ha subido un 5,77% y el de inversiones un 54%, y señala para qué se va a destinar este último capítulo: obras de la asociación vecinal Perurena y del frontón, proyecto de renovación de caminos públicos, urbanización del barrio Santigomendi y Emakumeon plaza, ascensor de Arrobitxu, varios proyectos en el polideportivo, ampliación del centro escolar, nueva ESO...

Señala que han hecho un esfuerzo para incluir en el presupuestos las realizadas por el EAJ-PNV, que algunas se han aprobado en su



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Jarraian, ogasun eta ondareko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- *EAJ-PNV talde politikoak eginiko emendakinak, 4100 sarrera zenbakia, gutxiestea.*

Bigarrena.- *Ordezko kontu-hartzaileak egindako emendakinak, 4105 sarrera zenbakia, onartzea.*

Hirugarrena.- *EHBildu talde politikoak egindako emendakinak, 4119 sarrera zenbakia, onartzea.*

Laugarrena.- *Arestian aipatu diren onetsitako emendakinak 2020ko aurrekontura sartuaz, 2020ko Aurrekontu Orokor kontsolidatuari eta osatzen duten dokumentuei hasierako onarpena ematea.*

Bosgarrena.- *21/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritakoari jarraituz, 2019ko Aurrekontu Orokorra hasieraz onartzeko espedientea jendaurrean jartzea 15 egun baliiodunetan, eta, alegaziorik izan ezean, behin betiko onartutzat jotzea, erabakirik eman beharrik gabe.*

Seigarrena.- *Hasierako onarpenaren erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.*

Nerea zinegotziak hitza hartu eta mahai gainean jarri du gobernu taldeak bere ekarpenak hilaren 17an aurkeztu izana, epea – ogasun batzordeko aktak jasotakoaren arabera – 16an bukatzen zenean. Eta udal gobernu taldeari beste taldeek ekarpenak epez kanpo eginez gero onartuko lituzketen galdetu ondoren, gaiaren inguruan udal idazkariak txostena egitea eskatu du.

Alkateak erantzun dio 17an egindako ekarpen guztiak onartuko zirela, baita ogasun batzordean azaldu zitzaizela herritarrekin azken bilera 16an egin zela, eta beraiek beti hartu dutela azken egun bezala 17a.

Bestetik, udal kontuhartzaileak azaldu dio ogasun batzordean azalpen guztiak eman zirela, emendakinetarako epea ez dagoela legez arautua, hasierako onarpenaren ondorengo alegazio-epearekin gertatzen den moduan.

totalidad y otras en parte.

A continuación, ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

Primero.- *Desestimar las enmiendas formuladas por el grupo político EAJ-PNV (número de entrada 4100).*

Segundo.- *Estimar las enmiendas formuladas por la interventora accidental (número de entrada 4105).*

Tercero.- *Estimar las enmiendas formuladas por el grupo político EHBildu (número de entrada 4119).*

Cuarto.- *Con las enmiendas estimadas que se incorporan al presupuesto 2020, proceder a la aprobación inicial del Presupuesto General consolidado 2020 y los documentos que lo integran.*

Quinto.- *Conforme a lo dispuesto en el artículo 15 de la Norma Foral 21/2003, someter el expediente de aprobación inicial del Presupuesto General 2020 a información pública por el plazo de 15 días hábiles, reseñando que en caso de no formularse alegaciones se entenderá aprobado definitivamente sin necesidad de nuevo acuerdo.*

Sexto.- *Remitir el acuerdo de aprobación inicial al Boletín Oficial de Gipuzkoa para su publicación.*

La concejala Nerea toma la palabra y pone sobre la mesa que el equipo de gobierno haya presentado sus enmiendas el día 17, cuando el plazo, según consta en el acta de la comisión de Hacienda, finalizaba el día 16. Y tras preguntarles si hubieran aceptado las realizadas fuera de plazo por otros grupos, solicita un informe de la Secretaria sobre el tema.

El alcalde le responde que se hubieran aceptado todas las realizadas el día 17, y que en la comisión de hacienda ya se les explicó que la última reunión con los vecinos era el 16, también que ellos siempre consideraron como último día el 17..



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Andoni zinegotziak gaineratu du udalak nahi duelako ematen duen epea dela, Astigarragako udalean EHBildu sartu zenetik egin ohi dena, baina ez dagoela legez arautua. Eta Nerea zinegotziari leporatu dio ogasun batzordean txostenik ez esaktu izana.

Nerea zinegotziak adierazi du beste udal gobernu taldeek erabilitako formulak ere ez doazela legearen kontra, gainerakoek zalantzan jarri ez dutena. Eta gaineratu du kontra bozkatuko dutela bere taldeak egindako ekarpen batzuk udal gobernu taldeak bere ekarpenetan sartu dituztelako, beharbada beren dokumentua ikusi ondoren, eta beste ekarpen batzuk, berriz, ez dituztelako haintzat hartu, eta beraiek estrategikotzat dituztela (esaterako, Santiagomendi-Landarbaso ekintza plana)

Andoni zinegotziak azaldu dio zergatik ezin dituzten ekarpen batzuk kontuan hartu, eta gaineratu du 12 haintzat hartu direla, beste 2 egiteke daudela eta 3 erdizka onartu direla.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **onartu** da aldeko 7 botoekin (*Astigarragako EHBildu*) eta kontrako 5 botoekin (*Astigarragako EAJ-PNV*).

Por otra parte, la interventora municipal le explica que en la comisión de hacienda se dieron todas las explicaciones, que el plazo para las enmiendas no está regulado por ley, como ocurre con el plazo de alegaciones tras la aprobación inicial.

El Concejal Andoni añade que es el plazo que da el Ayuntamiento porque quiere, que se suele hacer desde la entrada de EHBildu en el equipo de gobierno, pero que no está regulado por ley. Y reprocha a la concejala Nerea de no haber solicitado ningún informe en la comisión.

La concejala Nerea señala que las fórmulas utilizadas por los otros grupos de gobierno municipales tampoco van en contra de la ley, algo que no ha sido cuestionado por el resto. Y añade que votarán en contra porque algunas de las aportaciones realizadas por su grupo han sido incorporadas a las del equipo de gobierno municipal, tal vez después de ver su documento, y otras no se han tenido en cuenta, cuando ellos las consideran estratégicas (como el plan de acción Santiagomendi-Landarbaso).

El Concejal Andoni le explica por qué no pueden tener en cuenta algunas enmiendas y añade que se han aprobado 12, se van a ejecutar 2 y se han aprobado 3 a medias.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** con 7 votos a favor (*Astigarragako EHBildu*) y 5 en contra (*EAJ-PNV Astigarraga*).

3.- 2020-23ko dirulaguntzen plan estrategikoa

Alkateak ogasun eta ondareko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- *2020-2023ko diru-laguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa hasieraz onartzea.*

Bigarrena.- *Espedientea jendaurrean jartzea 30 egunez, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita, aipatu espedientea aztertu eta nahi duenak egoki iritzitako erreklamazioak*

3.- Plan estratégico de subvenciones 2020-2023.

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de hacienda y patrimonio:

Primero.- *Aprobar inicialmente la modificación del Plan Estratégico de subvenciones 2020-2023.*

Segundo.- *Proceder a la exposición pública del expediente para que en el plazo de 30 días a partir del día siguiente a la publicación de este anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa,*



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

aurkez ditzan.

Nerea zinegotziak adierazi du bere taldea kontra bozkatuko duela sagardotegietako autobusen dirulaguntza kendu delako. Eta alkateak erantzun dioenean udala zerbitzu horretan lagundu dezakeela, baina ez diruarekin, zinegotziak adierazi dio beraiek beste ikuspuntu batetik ikusten dutela, segurtasun eta jasangarritasun neurri bat bezala.

Azken adierazpen horrek Nerea eta Andoni zinegotzien arteko eztabaida sortu du, bigarrenaren hitzetan aurreko udal gobernu taldeak ez zuelako planteamendu bera eduki A1 eta A2 autobus zerbitzuen murrizketarekin, ezta A3 autobus-zerbitzua kendu zenean ere. Nerea zinegotziarentzat, berriz, hori ez zen horrela izan, eta udal taldeak saiaketa bat baino gehiago egin zituen zerbitzu horien alde.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **onartu** da aldeko 7 botoekin (*Astigarragako EHBildu*) eta kontrako 5 botoekin (*Astigarragako EAJ-PNV*).

4.- 2019ko soldata igoera

Alkateak azaldu du langile publikoen soldata igoera estatuko aurrekontu legean arautzen dela, eta 2019rako hiru igoera aurreikusten ziren arren, Astigarragako Udalak horietako bi bakarrik onartu dituela, bata urtarrilean, eta bestea, maiatzean. Jarraian, kudeaketa eta pertsonala batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Bakarra.- Soldata-masaren % 0,3ko gehikuntza gehigarria aplikatzea –2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin– Sektore Publikoaren esparruko ordainsarien arloko premiazko neurriak onartzen dituen 24/2018 Errege Lege Dekretuaren 3-bi artikulua azken paragrafoari jarraikiz.

Bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

los interesados puedan consultar el expediente y presentar por escrito las alegaciones que estimen oportunas.

La concejala Nerea señala que su grupo votará en contra porque se ha eliminado la subvención de los autobuses de las sidrerías. Y cuando el alcalde le ha contestado que el ayuntamiento puede colaborar en este servicio, pero no con dinero, la concejal le ha indicado que ellos lo ven desde otro punto de vista, como una medida de seguridad y sostenibilidad.

Esta última declaración ha suscitado el debate entre los concejales Nerea y Andoni, ya que en palabras del segundo el anterior equipo de gobierno municipal no tuvo el mismo planteamiento con la reducción de los servicios de autobús A1 y A2, ni cuando se suprimió el servicio A3. Por su parte, la concejala Nerea explicó que esto no fue así y que el grupo municipal realizó varios intentos a favor de dichos servicios.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** con 7 votos a favor (*Astigarragako EHBildu*) y 5 en contra (*EAJ-PNV Astigarraga*).

4.- Subida salarial del 2019

El alcalde explica que el incremento salarial de los empleados públicos se regula en la ley de presupuestos del Estado y que aunque se preveían tres subidas para 2019, el Ayuntamiento de Astigarraga sólo ha aprobado dos de ellas, una en enero y otra en mayo. A continuación, ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de gestión y personal:

Unico.- Aplicar – con efecto 1 de enero de 2019 – un incremento adicional del 0,3% de la masa salarial, respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2018, en cumplimiento al último párrafo del artículo 3-dos del Real Decreto-Ley 24/2018 por el que se aprueban medidas urgentes en materia de retribuciones en el ámbito del sector público.

Se procede a votar y se **aprueba** por **unanimidad**.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

5.- Astigarragako udalerrian hots kutsaduraren aurka babesteko udal ordenantzaren aldaketa puntuala

Alkateak hirigintza, etxebizitza, ingurugiroa eta mugikortasuneko batzordeko irizpena aurkeztu du eta akordio hau hartzea proposatu du:

Lehena.- *Hots kutsaduraren aurka babesteko udal ordenantzaren 38. artikularen aldaketa hasierako izaeraz onartzea.*

Bigarrena.- *Jendaurrean ezartzea 30 laneguneko epean.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

6.- Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarea

Alkateak azaldu du udalak beti hartu duela parte sarean, baina apirilean indarrean sartu zen Dekretuak eskatzen duela atxikipen ofiziala egitea. Jarraian, kirolak, jarduera fisikoa eta gazteak batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- *Atxikitzea Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareari.*

Bigarrena.- *Alkateari atxikimendu adierazpena sinatzeko ahalmena ematea.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

7.- Astigarragako Emakumeon Plaza berrurbanizatze proiektua

Alkateak obrak, zerbitzuak eta uholdeen aurkako batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

5.- Modificación puntual de la ordenanza municipal de protección contra la contaminación acústica en el municipio de Astigarraga.

El alcalde ha presentado el dictamen de la comisión de urbanismo, vivienda, medio ambiente y movilidad, y propone la adopción del siguiente acuerdo:

Primero.- *Aprobar inicialmente la modificación del artículo 38 de la Ordenanza municipal de protección contra la contaminación acústica.*

Segundo.- *Someter el documento a información pública por el plazo de 30 días hábiles.*

A continuación se procede a votar y se **aprueba** por **unanimidad**.

6.- Red Interinstitucional de Promoción de la infancia y la Juventud de Gipuzkoa

El alcalde ha explicado que el Ayuntamiento siempre ha formado parte de la red, pero que el Decreto que entró en vigor en abril exige la adhesión. A continuación, ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de deportes, actividad física y juventud:

Primero.- *Adherirse a la Red Interinstitucional de Promoción de la infancia y la Juventud de Gipuzkoa.*

Segundo.- *Autorizar al Alcalde a la firma de la declaración de adhesión.*

A continuación se procede a votar y se **aprueba** por **unanimidad**.

7.- Proyecto de ejecución de la reurbanización de Emakumeon Plaza de Astigarraga

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de obras, servicios y contra las inundaciones:



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Bakarra.- Emakumeon plaza berrurbanizatzeko proiektua onartzea.

Nerea zinegotziak hitza hartu eta adierazi du alde bozkatuko dutela, beren legealditik datorren gaia delako.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

8.- Putzuetako ur andelatik Zarkumendegira eta garraio hiriraino ur hornidurarako obra-proiektua.

Alkateak obrak, zerbitzuak eta uholdeen aurkako batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Bakarra.- Onartzea Putzuetako ur depositoa ur horniduraren hodiaZ Zarkumendegi eta garraioaren hiriarekin lotzeko.

Alkateak azaldu du udalak proiektua onartu ondoren, Astigarraga Lantzen sozietate publikoak ere onartu beharko duela, eta horrek izapidetuko duela kontratazioa espedientea.

Jon Arregik zinegotziak adierazi du batzordeko deialdia ez zuela jaso, eta gainera probintziatik kanpo zegoenez, ezingo zela bertaratu. Eta Nerea zinegotziak adierazi du gaia batzordean bertan argitu zela.

Horren harira Aintzane zinegotziak komentatu du berak hainbat mezu bidali diela eta ez duenez erantzunik jaso, ez dakiela ondo jasotzen duten, eta eskatu die jaso izana erantzutea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

9.- Kale izendegiaren aldaketa.

Alkateak obrak, zerbitzuak eta uholdeen aurkako batzordeko irizpen hauek aurkeztu ditu onartuak izan daitezten:

Unico.- Aprobar el proyecto de reurbanización de Emakumeon plaza.

Toma la palabra la concejala Nerea y señala que van a votar a favor, al ser un tema que viene de su legislatura.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimitad**.

8.- Proyecto de obras para la distribución de agua desde el depósito de Putzueta hasta Zarkumendegi y la ciudad del transporte

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión de obras, servicios y contra las inundaciones:

Única.- Aprobar el proyecto de conducción de agua desde el depósito de Putzueta hasta Zarkumendegi y la ciudad del transporte.

El alcalde explica que una vez aprobado el proyecto por el ayuntamiento, también tendrá que ser aprobado por la sociedad pública Astigarraga Lantzen, que tramitará el expediente de contratación.

El Concejal, Jon Arregi, manifiesta que no recibió la convocatoria de la comisión y que además, al estar fuera de la provincia, no podría acudir. Y la concejala Nerea señala que el tema se aclaró en la propia comisión.

Al hilo de ello, la Concejala, Aintzane, comenta que ella les ha enviado varios mensajes y al no recibir respuesta, no sabe si los reciben bien y les pide que respondan cuando los reciban.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimitad**.

9.- Modificación del callejero.

El alcalde ha presentado, para su aprobación, los siguientes dictámenes de la comisión de obras, servicios y contra las inundaciones:



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Lehen irizpena.- HJU 8.2 “AGUI” eremuko eraikin berriei honako kale izendegia ematea:

1. Tranbia ibilbidean diren 3 atari berriei 9, 11, eta 13 zk.ak jartzea.
2. Sortu den kale berria Izaskun kalea izendatzea eta bertako atariei 1, 2, 3, 4, 5 eta 6 zk.ak jartzea.

Bigarren irizpena.- Mikel Arozamena kalea 14bis zenbakia ematea Oialume auzoan eraikitako auzo elkarteko ekipamenduari (bizilagunen eskaerari jarraituz).

Nerea zinegotziak irizpenak puntuz puntu bozkatzea eskatu du, eta galdetu du zergatik ez den gaia kultura batzordetik pasa, baita ere zergatik ez den kontuan hartu kultura teknikariaren txostena.

Andoni zinegotziak erantzun dio gaia batzordean aztertu zela, eta ez dagoela kontrako txostenik.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **onartu** dira:

- Aho batez, lehen irizpeneko 1. puntua eta 2. Irizpena, eta
- aldeko 7 botoekin (*Astigarragako EHBildu*) eta kontrako 5 botoekin (*Astigarragako EAJ-PNV*), 1. Irizpeneko 2. puntua.

10.- EHBildu eta EAJ-PNV taldeen mozio bateratua: Kataluinako “Procés”aren aurkako urriaren 14ko epaia

Alkateak bi taldeek adostutako mozio hau aurkeztu du onartua izan dadin:

1. *Astigarragako Udalak ziurtatzen du demokraziaren adierazpen baketsua, indibiduala zein kolektiboa gauzatzea eta herriari hitza ematea ez dela delitua. Hori horrela, urriaren 1eko erreferenduma tresna demokratiko eta zilegizkoa izan zela, eta Kataluniak eta Euskal Herriak berezkoa dutela etorkizuna erabakitze eskubidea.*

2. *Astigarragako Udalak argi eta garbi adierazten du ezin direla justifikatu Espainiako Auzitegi Gorenak eta Estatuko botereek Kataluniako agintari eta gizarte eragileei bizkarreratutako auzia eta ezarritako zigorrak.*

3. *Astigarragako Udalak nabarmentzen du Kataluniako ‘Procés’-aren aurkako auziak eta epaiak Zuzenbide Estatuaren itxuragabetzea dakartela eta ezbaian jartzen dutela espainiar*

Primer dictamen.- Asignar a los edificios de la U.E.U. “AGUI” los siguientes números de callejero:

1. Los portales de Tranbia ibilbidea dotarlos con los números 9, 11 y 13.
2. Nombrar la calle creada como Izaskun kalea y los portales dotarlos con los números 1, 2, 3, 4, 5 y 6.

Segundo dictamen.- Dotar al equipamiento social construido en el barrio de Oialume con el número 14bis de Mikel Arozamena kalea, atendiendo la petición de los vecinos.

La Concejala Nerea solicita la votación punto por punto de los dictámenes y pregunta por qué no ha pasado el tema por la comisión de cultura y no se ha tenido en cuenta el informe de la técnica de cultura.

El Concejal, Andoni, responde que el tema se trató en comisión y que no hay informe desfavorable.

Se somete a votación y se **aprueban**:

- Por unanimidad, punto 1 del primer dictamen y el 2º dictamen, y
- 7 votos a favor (*Astigarragako EHBildu*) y 5 votos en contra (*EAJ-PNV Astigarraga*), el 2º punto del 1er dictamen.

10.- Moción conjunta de EHBildu y EAJ-PNV: sentencia del 14 de octubre en contra del “Procés” de Catalunya

El alcalde ha presentado, para su aprobación, la siguiente moción conjunta de los dos partidos:



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

demokraziaren homologazioa nazioartean.

4. Astigarragako Udalak azpimarratzen du euskal herritarrei zuzenean eragiten digula Estatu espainiarraren erantzun bortitzak, izan ere, herrien borondatea era demokratiko eta baketsuz erabakitzea mozten du. Eta arazo politikoari tribunalen indarrez, 155. artikulua ezarpenez edo erabakitze eskubidearen alde egiten dutenei edonolako neurri bidegabeak ezarritik erantzuten dio, irtenbide elkarrizketatu eta negoziatua bilatu ordez eta herriari galdetu beharrean.

5. Astigarragako Udalak Estatuko botereei eskatzen die, espetxean dauden preso politikoak berehala aske utz ditzala eta, era berean, erbesteratu politikoek aurkako auzibideak bertan behera utz ditzala.

6. Astigarragako Udalak elkartasuna adierazten die Kataluniako preso eta erbesteratu politikoei nahiz haien etxekoei, hala nola, Kataluniako herriari eta erakundeei, eta Astigarragako herritarrei dei egiten die bat egin dezaten herriari hitza ematearen aldeko ekimen baketsuekin, demokraziaren eta askatasunaren alde.

Nerea zinegotziak hitza hartu eta adierazi du pozten direla testu bateratu bat egin izanagatik.

Toma la palabra la concejal Nerea y señala que se alegran de haber suscrito un texto conjunto.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** da.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** por **unanimidad**.

11.- Informazio, galdera eta eskariak.

Nerea zinegotziak eskatu du hezkuntza batzordea egitea, uztailetik egin ez delako eta informazioa nahi dutelako udal gobernu taldeak herri eskola handitzeko duen alternatibaren inguruan.

Alkateak erantzun dio asmoa dela azaroko lehen asteetan egitea. Eta azaldu dio aurre-proiektua bat dutela, eta hori ikastolarekin eta guraso elkartearekin aztertu ondoren, hezkuntzara bidaliko dela.

11.- Información, ruegos y preguntas.

La concejala Nerea pide que se celebre la comisión de educación porque no se ha hecho desde julio y quieren información sobre la alternativa que tiene el equipo de gobierno municipal para ampliar la herri eskola.

El alcalde le responde que la intención es que se haga en las primeras semanas de noviembre. Y le explica que tienen un anteproyecto que, una vez analizado con la ikastola y la asociación de padres y madres, se remitirá a Educación.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin nik, Idazkariak, honako agiria egin dut

Astigarragan, 2019ko urriaren 29an.

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko udal-idazkaria